

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldiz kariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lana idazten duzunean, ordea, jarrai iezaiezu honako argi bide hauei:

Luzera: Ez dadila luzeegia izan. Ahal dela, gehienez 10 orri al de (20.000-30.000 karaktere).

Oin-oharrak: ohar bakoitza zenbakituta jarri. Oharren zerrenda osoa artikuluen amaieran denak batera eman.

Aipamen bibliografikoak: Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adierazi parentesi artean; demagun: “(Odriozola 1998)”.

Eta lanaren amaieran, berriz, aipamen guztien zerren da erantsi. Aipamen bakoitzari dagozkion xehetasunak honela adierazi: egilearen deiturak, izena, argitaratze urtea, lanaren izenburua, argitaratu zen hiria, argitaletxea, eta aipamenari dagozkion orrialde zenbakiak. Dema gun: Liburua baldin bada, izenburua letra etzanez idatzia: Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia. (48-59. or.).

Liburu baten kapitulua edo artikulua bat baldin bada, izenburua normal idatzia: Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126. or).

Irudiak: Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidali.

Kolorea: Lan guztiak zuri-beltzean izan behar dute: bai taulak, bai grafikoak, eta baita irudiak ere.

Egilearen erreferentzia: Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala edo euskaltzalearen erreferentzia eta helbide elektronikoa ere adierazi behar dira. Esaterako: Juan Luis Goikoetxea, Mendebaldea elkarte kide, helbide elektronikoa: are txudi@euskalnet.net .

Laburpena: Lanarekin batera bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du aldizkariaren hasieran, eta baita interneten.

Hitz-gakoak. Artikuluri lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Zuzenketa: Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea (Xuxen zuzentzaile ortografikoak lan hori erraz eta bizkor egingo dizu). Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epeak: Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epe bat adostuko da